



ISIDOR BAZTARRIKA, O.S.B.

JON GOTZON ETXEBARRIA

Barriro esi daigun ludijaren gerrija,
Ez bitsez, ez indarrez, gogayakaz baño.
Itxaruak berua euzkotarren ontzija
Goguak nausi diran argitasun goiraño.

(Lauaxeta, "BIDE BARRIJAK", Itxasora; 146. orrialdea. - Bilbo, 1931)

Andre
Maria-ren
Goratzarreak

PVP
175

Λόγος δυνάστης μέγας ἔστιν
(Gorgias, "Helena" 8-9)

5

εἰς τὴν ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος

17-11-78

ANDRE MARIA-ren
GORATZARREAK

Goratzarreen kondaira-erabilerak:
ISIDOR BAZTARRIKA, O.S.B.

Goratzarreen itzulpen-oharrak:
JON GOTZON ETXEBARRIA .

εις τήν ἐλευθερίαν
τῆς πατρίδος
liburu-sorta
GERNIKA



© Jon Gotzon Etxebarria
Legezko Gordailua:BI-1590-88
ISBN: 84-404-2736-0

LANKOPI-Colón de Larreategi, 16-BILBO

A la memoria de
DON JOSE VELEZ DE MENDIZABAL,
sacerdote, natural de Dallo (A-
raba), que vivió y murió larga-
mente en Santurtzi (Bizkaia), y
que con su conducta sacerdotal-
mente ejemplar, vivió de tal ma-
nera la devoción a Dios, a la
Virgen, a los Santos y a las al-
mas, que aprendí su significado
(de-voveo: ofrendarse totalmen-
te a) sin consultar gramáticas
y diccionarios.

Ahora, en la Jerusalén celesti-
al, desde esa gloriosa comitiva
que sigue al Cordero, (Ap. 7, 9-12)

MEMENTO MEI.

Jon Gotzon Etxebarria

LITURGI-GORATZARREAK

Elizaren Liturgiak beti erabili ditu, bereziki Eliz-otoitzean edo Orduen liturgian, hymnoak edo goratzarreak, Jainko Jaunari gorespenak kantatzeko. Liturgian, hymnoen atal hau dugu zatirik herrikoien eta biziena. Beste atalak Bibliatik hartuak bait daude (ikus Salmoak, irakurgaiak); hau, berriz, kristau herriak berak sortua da, otoitzak beza la.

Goratzarreen sorrera aintzina aintzinakoa da. Apostoluen Elizak, lehen mendean, erabili ohi zituen batzar eta ottoitzaldietan. Paulo apostoluak honela dio bere gutun batean: "Bizi bedi oparo zuengan Kristoren hitza. Irakats eta zentzaraz elkar jakinduria guztiz. Kanta Jainkoari eskerronez eta bihotzez salmoak, goratzarreak eta goiarnasazko abestiak". (Kol. 3, 16)

Hona hemen apostoluen garaietako zen

bait kantu eta goratzarre: Magnificat, (Lk. 1, 46-55); Benedictus (Lk. 1, 68-79); Nunc dimittis (Lk. 2, 29-32); 1 Tm. 3, 16; Ap. 4, 8; 15, 3...

Ezagutzen ditugu ere lehenengo mendeetako (2., 3., eta 4. mendeak) beste zenbait goratzarre edo abesti, eta horietako batzuk, oso ederrak, erabili ohi ditugu gaurko elizkizunetan, adibidez, Gloria in excelsis Deo, Te Deum laudamus, Oi argi pozgarri (Oh luz gozosa).. Sortaldeko Elizetan, Grezian, Sirian, Armenian..., oso aintzinatik ezagutzen eta erabiltzen zituzten goratzarreak liturgian edo herriaren ottoitzaldietan. Hymno-egile iaioa eta ezaguna dugu, esaterako, Efren santua (4. mendekoa) Sartaldean, berriz, 4. eta 5. mendeetan hymnologiak indar berri bat hartu zuten, bereziki, Prudentziori, Hilario santuari eta Ambrosio santuari esker. Berrietan Ambrosio dugu buru eta txapel

dun. Milango eliz barrutian, hymnozale eta hymnogile iaio eta herrikoia agertu zen. Berau dela, esan daiteke, latin-erazko hymnologiaren sortzaile. Bertso tan ematen ditu goratzarreak, erritmo arinean eta esakera errazean.

Benito santuak, 6. mendean, bere Erregelan goratzarreari "ambrosianum" deritza eta otoitz-ordu bakoitzean goratzarre bana esan dadila ezartzen du. Horrela, beneditar lekaideen eraginez, goratzarreak kantatzeko ohitura sartaldeko Eliz askotan zabaltzen da. Halare, Erromako Elizak ez zuen hymnoak bertako Basiliketan kantatzeko ohitura onartu 10. edo 11. menderarte.

Ambrosio santuaren ondoren hymno-egile ezagunenak aipatzekotan, hauek eman daitezke: Sedulius (5. mendekoa), V. Fortunato (6. mendekoa), Gregorio Haundia (6. mendekoa), Paulo diakonoa (7. mendekoa), Rabano Mauro (9. mendekoa), Akino-

ko Tomas santua (13. mendekoa)...

Horiei zor dizkiegu gaurko liturgiaren goratzarrerik bikainenak, adibidez, A solis ortus cardine (Eguberritakoa), Vexilla Regis (Gurutzeari buruzkoa), Veni Creator Spiritus (Pentekostes), Pange lingua gloriosi (Corpus egunekoa).. Erdi aroan hymnologiak, orduko poesi arloan eta giroan, loraldi miragarri bat lortu zuen, milaka goratzarre eta abesti sortaraziz, kristau herriari oso gogoko bait zitzaion kantu-erari. Elizak liturgiarako onentxoetak jasoz zituen, antologia bat osatuz.

16. eta 17. mendeetan, eliz-goratzarreak eraberritzeko ekinaldi batzuk egin ziren, humanista askori ez bait zitzaizkien atsegin Erdi aroko goratzarreak, zatar eta herrikoiegiak zirelata, ez nonbait nahi bezain klasikoak. Eta Urbano VIII. Aita Santuaren aginduz, 1631 urtean, argitara eman zen Eliz O-

toitz-liburu berria, goratzarreak ere zerbait aldatuz edo ikutuz. Gaur askoren iritziz, erreforma edo zuzenketa hori ez zen onerako izan, tradizio aldetik behintzat, kalterako baizik.

Vaticanoko II Kontzilioak, Orduen Liturgia eraberritzean, goratzarreei eta beste herri abestiei garrantzi berezi bat ematen die. Izan ere balio handiak bait dituzte, Jainkoa egoki gorespen laguntzeko, bai literatur-edertasu nagatik eta bai hain herrikoiak direlako.

Goratzarreek, Orduen hasieran, otoitz-Ordu bakoitzaren zentzua eta giroa adierazten dute edo eguneko jaialdia ena. Gaur, Herrialde bakoitzeko Gotzaien iritziz, latinezko goratzarreak herri hizkuntzetan eman daitezke, itzulpen egokiak eginez; baina zilegi da ere goratzarre berriak sortzea, kristau eta literatur-balioak beti haintzat edu-

kiz (ikus: Institutio Generalis de Liturgia Horarum, 173-178)

Goratzarreak beti kantuz eman behar dira, horrela zentzu beteagoa adierazten bait dute. Agustin santuaren iritziz goratzarreak hiru baldintza eskatzen dituzte: gorespen izatea, Jainkoari zuzendua, eta kantuz emana: "Hymni sunt cantus continentales laudem Dei. Si sit laus et non sit Dei, non est hymnus; si sit Dei et non cantetur, non est hymnus; oportet, ut sit hymnus, habeat haec tria: et laudem, et Dei, et canticum".

Elizak Andre Mariaren jaietan erabiltzen dituen goratzarreak ugariak eta eder ederrak ditugu. Horietako batzuk, adibidez, "Ave maris Stella", "Quem terra, pontus", "O gloriosa Domina", "Stabat Mater"... , Erdi Aroan eginak dira, 10. mendean edo, eta egiazko maisulanak

alde askotatik begiratuta.

ISIDOR BAZTARRIKA
Estibaliz-ko Beditarra.
Maiatza, 1988



ESTIBALIZ-ko ANDRE MARIA

ESKAINTZA

Virgo, Mater et Regina,
ad iuvandum me festina,
ne peream inanis.

Sancta Mater Salvatoris,
audi precem peccatoris;
infirmus sum et inops.

Virgo Virginum praeclara,
respice quam sit amara
vita iniquitatis.

Regina terrae et coelorum,
spes et salus infirmorum,
attende me supplicem.

J. G. Etxebarria
Gernika-1988

GORATZARREAK

HYMNUS

A solis ortus cárdine
adúsque terræ límitem
Christum canámus princípem,
natum María Vírgine.

Beátus auctor sáculi
servíle corpus índuit,
ut carne carnem liberans
non pérderet quod cóndidit.

Clausæ paréntis víscera
cæléstis intrat grátia;
venter puéllæ báíulat
secréta quæ non nóverat.

Domus pudíci péctoris
templum repénte fit Dei;
intácta nésciens virum
verbo concépit Fílium.

Eníxa est puérpera
quem Gábriel prædíxerat,
quem matris alvo géstiens
clausus Ioánnes sénserat.

Feno iacére pértulit,
præsépe non abhórruit,
parvóque lacte pastus est
per quem nec ales ésurit.

Ekialdetik lurraren
azkenengo mugaraino
gora Errege, Birjina
Maria-gandiko, Kristo!

Mundu-egile santuak
otsein-gorputza beretzat,
gorputza gorputzez ondu,
gizona gal ez zedintzat.

Ama garbiaren errai-
barruan zeru-grazia:
Sabelean badaroa
neskatxak ezkutukia.

Bular garbia behingoz
Jaungoikoaren etxea.
Gizonik ezagutu ez
ta sabelean Semea.

Gaudet chorus cælestium
 et ángeli canunt Deum,
 palámque fit pastóribus
 pastor, creátor ómnium.

Iesu, tibi sit glória,
 qui natus es de Vírgine,
 cum Patre et almo Spíritu,
 in sempitérna sácula. Amen.

Gabriel-ek iragarri,
 Bataiatzaileak asma
 zuena sabel-barruan,
 Haretxen egiten da Ama.

Lasto-gainean etzanik,
 askari ez egin muzin.
 Txori-elikatzaileak
 aski du esnearekin.

Zerutarrak poz, aingeru-
 aldrak Jainkoari kanta.
 Artzainei agertzen zaie
 Artzaina, guztion Aita.

Birjinagandiko Josu,
 Zuri aintza eta Aitari,
 Gogo Gurenarekin bat,
 mendez mende. Hala bedi.

HYMNUS

Ave, maris stella,
 Dei mater alma,
 atque semper virgo,
 felix cæli porta.

Sumens illud « Ave »
 Gabriélis ore,
 funda nos in pace,
 mutans Evæ nomen.

Solve vincla reis,
 profer lumen cæcis,
 mala nostra pelle,
 bona cuncta posce.

Monstra te esse matrem,
 sumat per te precem
 qui pro nobis natus
 tulit esse tuus.

Virgo singuláris,
 inter omnes mitis,
 nos culpis solútos
 mites fac et castos.

Agur itsaso-izar,
 Jainko-ama haurtzain,
 beti Birjina ta
 zeru-ate bikain.

Gabriel-engandik
 agur hura jasoz,
 Eba izena aldatuz,
 jar gu bake sendoz.

Aska errudunak,
 itsuak argitu,
 gure gaitzak urrun,
 on dena eskatu.

Ager zaitetz ama,
 zure Semea zen
 gugatik jaioa,
 erregutu, arren.

Vitam præsta puram,
 iter para tutum,
 ut vidéntes Iesum
 semper collætémur.

Sit laus Deo Patri,
 summo Christo decus,
 Spirítui Sancto
 honor, tribus unus. Amen.

Birjina handia,
 denik gozoena,
 garbi-gozo egin
 gu;lor barkamena.

Eman bizi garbiz
 ziur ibiltzea,
 Josu ikusiz beti
 dugun poz betea.

Gora Aita Jainkoa,
 Kristo Goren,berdin
 Gogo Gurena,agur.
 Hirurak aintzaz duin.

HYMNUS

O gloriósa dómina
excélsa super sídera,
qui te creávit próvide,
lactas sacráto úbere.

Quod Eva tristis ábstulit,
tu reddis almo gérmine;
intrent ut astra flébiles,
sternis benígna sémitam.

Tu regis alti iánua
et porta lucis fúlgida;
vitam datam per Vírginem,
gentes redémp̄tæ, pláud̄ite.

Patri sit et Paráclito
tuóque Nato glória,
qui veste te mirábili
circumdedérunt grátiā. Amen.

Andre goren hori, agur!
Izarren artean gailen,
irazan zintuen haurra
esne santuz duzu hazten.

Eba gaixoak eroan
ziguna, Zeuk bizi-haziz
dakarzu, gaixook goian
sartzeko bidea irekiz.

Goi-Erregeren atea,
argi-jauregi bitxia:
Gora, gaizkatu jendea,
Miren-gandiko bizia!

Aita, Gogo Gurenari,
zure Semeari, aintza;
harrigarrizko graziaz
jantzi zizuten gorputza.

HYMNUS

Iesu, coróna vírginum,
quem Mater illa cóncipit
quæ sola virgo párturit,
hæc vota clemens áccipe,

Qui pascis inter lília
sæptus choréis vírginum,
sponsus decórus glória
sponsisque reddens præmia:

Quocúmque pergis, vírgines
sequúntur, atque láudibus
post te canéntes cúrsítant
hymnósque dulces pérsonant.

Te deprecámur, lárgius
nostris adáuge méntibus
nescíre prorsus ómnia
corruptiónis vulnera.

Josu, Birjinen koroe,
Amak sortu bait zintuen
Birjina gelditu zela,
har onez gure eskaintza, arren.

Loreen artean zoaz,
Birjin-taldeak inguruz,
aintzaz beteriko senar,
ezkontideak sarituz.

Edonora jo, Birjinak
goraka eta abestiz
badoaz zure atzetik
jarraiki, eresi eztiz.

Apal eskatzen dizugu,
arren, gure zentzumenek ez
dezatela jasan inoiz
oben-zauririk bat ere ez.

Iesu, tibi sit glória,
qui natus es de Vírgine,
cum Patre et almo Spíritu,
in sempitérna sácula. Amen.

Birjinagandik sortua
zaren Josu-ri omena,
Aita, Gogo Gurenari,
gizaldietan barrena.

HYMNUS

Solis, o Virgo, rádiis amícta,
bis caput senis redimíta stellis,
luna cui præbet pédibus scabéllum,
ínclita fulges.

Mortis, inférni domitríxque culpæ,
ássides Christo studiósá nostri,
teque regínám célebrat poténtem
terra polúsque.

Asseclas diæ fidei tuére;
díssitos adduc ad ovíle sacrum;
quas diu gentes tegit umbra mortis
úndique coge.

Sóntibus mitis véniam precáre,
ádiuva flentes, ínopes et ægros,
spes mica cunctis per acúta vitæ
certa salútis.

Laus sit excélsæ Tríadi perénnis,
quæ tibi, Virgo, tribuit corónam,
atque regínám statuítque nostram
próvida matrem. Amen.

Birjina, eguzki-izpiz jantzia,
hamabi izarrez burua apain,
ilargia duzu oin-azpietan,
distiraz bikain.

Heriotza-infernu latzen garaile,
Kristo-ren ondoan gure aldeko
Erregina ahaltzu zara zerutar-
lurtarrentzako.

Zain gaitzazu Jainko-fedean; ihes
eginak artegi santura ekar;
herio-itzalpean direnak oro
babespean jar.

Lor barkamena, arren, eskaleentzat;
lagun negar, gaixo, beharrez dena,
oinazeetan zaitetz, ziur, salbamen-
itxaropena.

Gora Hirutasun Gorena beti,
koroia eman bait dizu, Birjina;
maitez egin zaitu gure Ama ta
gure Erregina.



LIZARRAZU-ko ANDRE MARIA

Baigorri (B.M.)

HYMNUS

Stabat mater dolorosa
iuxta crucem lacrimosa,
dum pendebat Filius.

Cuius animam gementem,
contristatam et dolentem
pertransiit gladius.

O quam tristis et afflicta
fuit illa benedicta
mater Unigeniti!

Quæ mærebat et dolébat
pia mater, cum vidébat
Nati pœnas íncliti.

Quis est homo qui non fleret,
matrem Christi si vidéret
in tanto supplicio?

Ama beterik saminez
gurutz-ondoan negarrez,
Semea bertan zintzil.

Haren anima-minetan
tristura eta nekeetan
ezpatak egin zun tril.

Zer tristura, zer samina,
Jaungoiko-Ama Birjina
bedeinkatu harena!

Triste, atsekabeturik,
Ama ona, ikusirik
minez Seme ederrena.

Nork ez du negar egingo
Kristo-ren Ama halako
oinazetan ikusiz?

Quis non posset contristári,
píam matrem contemplári
doléntem cum Filio?

Pro peccátiis suæ gentis
vidit Iesum in torméntis
et flagéllis súbditum.

Vidit suum dulcem Natum
moriéntem desolátum,
cum emísit spíritum.

Christe, cum sit hinc exíre,
da per matrem me veníre
ad palmam victóriæ. Amen.

Nork ikus tristatu gabe
Jainkoaren Ama bere
Semearekin antsiz?

Giza-bekatuen erruz
oinazez ikusi Jesus,
zigorkadak jasaten.

Bere Seme ona ikusi
zuen hiltzear, bakarti,
azken arnasa galtzen.

Kristo, hemengo aldia
eginda, noan, Maria
lagun, garaipenera.

HYMNUS

Virgo vírginum præclára,
 mihi iam non sis amára;
 fac me tecum plángere.

Fac ut portem Christi mortem,
 passiónis fac me sortem
 et plagas recólere.

Fac me plagis vulnerári,
 cruce hac inebriári
 et cruóre Fílii.

Flammis urar ne succénsus,
 per te, Virgo, sim defénsus
 in die iudícii.

Birjina Birjinen aintza,
 ez izan niretzat latza.
 Zurekin negarrez bat.

Daramadala Kristo-ren
 heriotza, Pasioren
 kide, minak gogoan.

Semearen zauriekin
 zauri, odol-gurutzekin
 zorabia nadila.

Sutan erre ez nadin, nire
 alde, Birjina, jar zaite
 epai-egunez, arren.

Fac me cruce custodíri,
 morte Christi præmuníri,
 confovéri grátia.

Quando corpus moriétur,
 fac ut ánimæ donétur
 paradísi glória. Amen.

Gurutzea zaindari jar,
 Kristo-ren heriotza indar,
 grazia, arren, barne-su.

Gorputzarenak eginez
 gero, bihoa anima artez
 zeru ederrera. Amen.

Hymnus

M eménto, rerum Cónditor,
 Nostri quod olim córporis,
 Sacráta ab albo Virgínis
 Nascéndo, formam sumpseris.

María, Mater grátia,
 Dulcis Párens cleméntia,
 Tu nos ab hoste prótege
 Et mortis hora súscipe.

Jesu, tibi sit glória,
 Qui natus es de Virgine,
 Cum Patre, et almo Spírítu,
 In sempitérna sácula.
 A men.

Gogora, gauzen Egile,
 behinola gure gorputz-
 itxura hartu zenuen
 Birjinarengandik sortuz.

Miren, graziaren Ama,
 Erruki-sortzaile eztitsu,
 etsaiarengandik babes,
 hil-orduan har gaitzazu.

Josu, Birjinak sortua,
 aintza Zuri eta Aitari,
 Gogo Gurenarekin bat,
 mendez mende. Hala bedi.

HYMNUS

- 1 Omni die dic Mariae
mea laudes anima:
ejus festa, ejus gesta
cole splendidissima
- 2 Contemplare et mirare
ejus celsitudinem;
dic felicem genitricem,
dic beatam virginem.
- 3 Ipsam cole ut de mole
criminum te liberet:
hanc appella, ne procella
vitiorum superet.
- 4 Haec persona nobis bona
contulit caelestia:
haec regina nos divina
illustravit gratia.

1. Egun osoan Maria
gorets, ene gogoa.
Ospatu haren jai eta
bizitza oparoa.
2. So egin eta miretsi
hark duen goierea.
Deitu Ama zorientsu
eta Birjin donea.
3. Gur egin, bekatu-meta
astunetik atera
eta okerren ekaitzak
zu ez zaitzan urpera.
4. Beronek zeruko onak
eskuratu dizkigu;
Erregina honek Jainko-
graziz argitu gaitu.

- 5 Lingua mea, dic trophaea
virginis puerperae,
quae inflicto maledictum
miro transfert genere.
- 6 Sine fine dic reginae
mundi laudum cantica:
ejus bona semper sona,
semper illum praedica.
- 7 Omnes mei sensus ei
personate gloriam;
frequentate tam beatæ
virginis memoriam.
- 8 Nullus certe tam disertæ
extat eloquentiæ
qui condignos promat hymnos
ejus excellentiæ.

5. Ene mihi, Birjina ama
gorena ederretsi.
Eman zitzaignun zigorra
aise zuen itzuri.
6. Aspergabe egin munduko
Erreginari kanta.
Haren onak zabal beti
Hura ahotan hartuta.
7. Nire zentzun orok Hari
emaiozue aintza;
izan sarritan Birjina
donearen oroitzta.
8. Inor ez da hainbesteko
hizlari, egokiro
agertzeko goratzarrez
Haren duintasun oro.

- 9 Omnes laudent unde gaudent
matrem Dei virginem:
nullus fingat quod attingat
ejus celsitudinem.
- 10 Nemo dicet quantum licet
laudans ejus merita:
cujus cuncta sunt creata
ditioni subdita.
- 11 Sed necesse quod pròdesse
constat piis mentibus,
ut intendam et impendam
me ipsius laudibus.
- 12 Quamvis sciam quod Mariam
nemo digne praedicet,
tamen vanus et insanus
est qui illam reticet.

9. Denak poz, gorets bezate
Jainko-Ama Birjina.
Inork Haren parekorik
ontzea bai ezina.
10. Haren merituak inork
ezin azaldu aski.
Egindako oro Haren
menpean dira bizi.
11. Gogo onekoen mesede
dadina esan behar;
Haren omenez saiatu
naiteke akitzear.
12. Maria inork ez du neurritz
ederretsiko, zinez.
Baina, harro-ergela, soil,
Hura isildu nahiez.

- 13 Cujus vita erudita,
disciplina caelica,
argumenta et figmenta
destruxit haeretica.
- 14 Cujus mores, tamquam flores,
exornant ecclesiam;
actiones et sermones
miram praestant gratiam.
- 15 Evae crimen nobis limen
paradisi clauserat:
haec dum credit et oboedit
caeli claustra reserat.
- 16 Propter Evam homo saevam
accepit sententiam,
per Mariam habet viam
quae ducit ad patriam.

13. Haren bizitzak, zerutar
irakatsiz, herejeen
arrazoi eta gezurrak
ezereztu zituen.
14. Haren ohituren loreak
Eliz-apaingarria.
Esan-eginetan badu
berarizko grazia.
15. Eba-ren obenez zeru-
atea itxi zitzaigun;
Hau izan zen zabaltzaile
esaneke-sinestun.
16. Ebagatik hartu zuen
gizonak epai latza.
Maria-ren bidez badu
bidea aberrirantza.

- 17 Haec amanda et laudanda
 cunctis specialiter;
 venerari et precari
 decet illum jugiter.
- 18 Ipsam posco quam cognosco
 posse prorsus omnia,
 ut evellat et repellat
 quaecumque sunt noxia.
- 19 Ipsa donet ut quod monet
 ejus natus faciam,
 et finita carnis vita
 laetus hunc aspiciam.

17. Guztiok gorai patu Hau
 eta izan maite-maite.
 Gurtza eta otoitza zor
 zaizkio betiere.
18. Badakit ahal duela
 dena eta eskean
 natorkio, kaltegarri
 oro ken, urrun dezan.
19. Lagun nazala Semeak
 agindua betetzen,
 pozez ikusteko Berau
 bizitzaren ondoren.

Andre Maria-ren urtea dela eta, ez dugu nahi izan gure hizkuntza ospakizun hauetatik at utzi. Ditugun Andre Maria-ren goratzarreetatik bildumatxo hau kaleratu dugu.

Goratzarreen zer-nolakotasuna Aita Baztarrika Beneditarrak hitzaurre polit-mamintsuan azaldu digu.

Hemen datozanen metrika-edukinen azterketak liburu-sorta hontan darabilgun orri-kopurua baino aski handiagoa eskatzen zuen. Bihoaz, beraz, besterik gabe. Dauden moduan dira ederrak eta gustagarriak.

Musika-zale direnentzat oharkizun hau erantsi behar: Latinez duten metrika berdinez daude euskaratuak.

Horrela, bada, originalaren musika-doinuaz kanta litezke: "Cantare amantis est", esan zigun San Agustin-ek, eta: "Qui cantat, bis orat", gure aurretikoen hitzetan.

LATINEZKO GORATZARREEN

hasiera-neurtitzak:

orrialdeak

A solis ortus cardine.....	14
(Liturgia Horarum-Tempus Nativitatis)	
Ave, maris stella.....	18
(ibidem)	
Iesu, corona virginum.....	24
(ibidem)	
Memento, rerum Conditor.....	40
(Horae Diurnae-Officium parvum B.M.V. per Annum)	
O gloriosa domina.....	22
(Liturgia Horarum-ibidem)	
Omni die dic Mariae.....	42
Solis, o Virgo, radiis amicta.....	28
(Liturgia Horarum-Tempus per Annum-Hebdomadae XVIII-XXXIV)	
Virgo, Mater et Regina.....	12
(J.G.Etxebarria)	

orrialdeak

Virgo virginum praeclara.....36

(Liturgia Horarum-Tempus per
Annum-Hebdomadae XVIII-XXXIV)

EUSKARAZKO ITZULPENAREN

hasiera-neurtitzak:

orrialdeak

Agur, itsaso-izar.....19

Ama beterik saminez.....33

Andre goren hori, agur!.....23

Birjina Birjinen aintza.....37

Birjina, eguzki-izpiz jantzia....29

Egun osoan Maria.....43

Ekialdetik lurraren.....15

Eskaintza.....12

Gogora, gauzen Egile.....41

Josu, Birjinen koroe.....25